



# Euskal Lexikografia. Irakaskuntza txostena 1

Blanca Urgell

► **To cite this version:**

| Blanca Urgell. Euskal Lexikografia. Irakaskuntza txostena 1. 2002. artxibo-00656947

**HAL Id: artxibo-00656947**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00656947>**

Submitted on 5 Jan 2012

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA  
FILOLOGIA ETA GEOGRAFI-HISTORIA FAKULTATEA  
EUSKAL FILOLOGIA SAILA

EUSKAL LEXIKOGRAFIA  
IRAKASKUNTZA PROIEKTUA

María Blanca Urgell Lázaro

2002ko urria

AURKIBIDEA
------------

<u>Sarrera</u> .....	iv
1. <u>Lexikografia</u> .....	v
1.1. Metalexikografiaren xedea eta helburuak .....	vii
1.2. Metalexikografiaren norabide nagusiak .....	x
2. <u>Euskal Lexikografia</u> .....	xii
3. <u>Euskal Lexikografia irakasgai modura</u> .....	xviii
3.1. Arloaren egoera .....	xviii
3.2. Hartzaileak .....	xix
3.2.1. Filologiako ikasleak .....	xix
3.2.2. Itzulpengintzako ikasleak .....	xx
3.2.3. Hirugarren zikloko ikasleei begira .....	xxi
4. <u>Helburuak</u> .....	xxii
4.1. Helburu orokorrak .....	xxii
4.2. Helburu zehatzak .....	xxii
5. <u>Metodologia</u> .....	xxv
5.1. Alde teorikoa: eskolako azalpenak .....	xxv
5.2. Alde praktikoa: adibide eta argigarriak .....	xxvi
6. <u>Ebaluaketa</u> .....	xxviii
6.1. Ikaslearen ebaluaketa.....	xxviii
6.2. Irakaslearen ebaluaketa .....	xxx
7. <u>Gaien izaera eta egitura</u> .....	xxxii
7.1. Gaitegiaren edukia .....	xxxii
7.2. Gaien egitura .....	xxxii

8. <u>Eranskinak</u> .....	xxxiii
9. <u>Gaien garapena</u>	
1. gaia. Lexikografi oinarri teorikoak .....	1
2. gaia. Europako lexikografiaren hastapenak .....	17
3. gaia. Euskal hiztegitzaren hastapenak .....	31
4. gaia. Larramendiren aurreko hiztegiak (1562-1745) .....	41
5. gaia. Larramendiren hiztegitza .....	51
6. gaia. Larramendiren ondorengo hiztegitza (1745-1905) .....	65
7. gaia. Azkueren garaia (1905-1970) .....	79
8. gaia. Hiztegitza batua (1970etik aurrera) .....	95
<u>Bibliografia</u> .....	111
<u>Iturriak</u> .....	129
I. 1745 arteko hiztegiak .....	129
II. Larramendiren ondoko hiztegiak (1745-1905) .....	132
III. Azkueren hiztegiak eta ondokoak (1905-1970) .....	137
IV. 1970 ondoko hiztegiak.....	145
<u>Adibide eta argigarriak</u> .....	157
1. gaia. Lexikografi oinarri teorikoak.....	159
2. gaia. Europako lexikografiaren hastapenak .....	171
3. gaia. Euskal hiztegitzaren hastapenak .....	175
4. gaia. Larramendiren aurreko hiztegiak (1562-1745) .....	207
5. gaia. Larramendiren hiztegitza .....	231
6. gaia. Larramendiren ondorengo hiztegitza (1745-1905) .....	255
7. gaia. Azkueren garaia (1905-1970) .....	269
8. gaia. Hiztegitza batua (1970etik aurrera) .....	281

## IRAKASKUNTZA PROIEKTUAREN AURKEZPENA

### Sarrera

Honen bitartez aurkezten dudan irakaskuntza proiektua, Euskal Herriko Unibertsitateak 2001eko urriaren 3ko BOE-ko deialdian ateratako Unibertsitateko Irakasleen Kidegoetako plazetako baten —"Euskal Lexikografia" izenekoaren (183. zb.)— lehiaketa publikoan parte hartzeko prestatu izan da.

Beraz, proiektu honetan bildutakoak islatu nahi du, lehian dagoen irakasle plaza hori eskuratuz gero, "Euskal Lexikografia" irakasgaia (2. zikloko hautazkoa, 6 kreditukoa) nondik bideratu eta nola garatuko nukeen; zein diren, nire ustez, haren edukiak eta helburuak, baita hauek lortzeko erabili beharreko baliabideak, aurrez izandako eskarmentuan oinarrituta.

Aurkezpen honen egitura orrokorretik partikularrera doan hari bati atxikitzen zaio. Lehen-lehenik "Lexikografia" zer den, noiz eta zergatik bihurtu den iker-arlo, eta nola aztertu ohi den azalduko dut. Bigarrenik, "Euskal Lexikografia" bera iker-arlo gisa nola garatu den eta egun zertan den. Bi oinarri hauen gainean hobeto ulertuko da, hala uste dut behintzat, Euskal Lexikografia irakasgaiari heltzeko erabiliko nukeen ikuspuntua: hauxe da, hain zuzen, hirugarren atalaren xedea. Hurrengoetan helburuak (§ 4), metodologia (§ 5) eta ebaluaketa-sistemak azaltzen dira hurrenez hurren, eta ondotik egitasmoko gaien izaera eta egitura (§ 6), hala nola eranskin gisa aurkezten diren bi atalen (iturriak eta adibide-argigarriak) nondik norakoak (§ 7).

## 1. Lexikografia

Lexikografia, “hiztegiak egiteko antzea” (*EH*, s.v.), tradizio luzeko jardunbidea da, funtsean idazkeraren lehen lekukotasunak bezain zaharra. Lexikografiaren Teoria edo Metalexikografia, aldiz, nahiko berritzaile jo behar dugu.

XX. mendera arte teoria, nonbait agertzekotan, hiru lekutan bakarrik agertzen zen: hiztegien hitzaurreetan, hiztegiei buruzko erreseinetan eta hiztegi-entziklopedietako “hiztegi” sarreretan (Hausmann 1988, 1989). Honek esan nahi du gehienbat hiztegiak eurak izan direla —ez guztiak, ezta hurrik eman ere— hiztegiak hausnarketa egin dutenak. Jardunbidea ikasteko bide bakarra ere, artisauen modura, jardutea bera zen, hiztegiak egitea alegia, eskuarki eredu gisa hartutako aurreko hiztegiaren baten laguntzaz. Ez zegoen, eta ez dago, hiztegiak egiten irakasten duen eskolarik.

XX. mendean Lexikografiak, “hiztegiak egiteko antzea” izateari utzi gabe, jakina, bere lehengo mugak gainditu ditu, “hiztegiak egitearen hausnarketa teorikoak aztertzen dituen jakintza” izaera (*EH*, s.v.) bere eginez. Alderdi teoriko honek beregaintasuna erdietsi du tartean, bai Hiztegiak egitearen beretik bereizita, bai teoriaren aldetik orokorrago diharduen Lexikologiatik.

Lehenengo unean, mende aldaketan, alderdi historiografikoari heldu zitzaion, guztiz mundu anglo-germanikoan: Heerdegen (1885), Murray (1900), Cohn (1900)...<sup>1</sup> Joera honen barruan Starnesen eskolako lanek (Starnes & Noyes 1946, Starnes 1954...) eratu dute egun Lexikografiaren Historiografia dena.

Artean ez dago ia ezer ere aurkitzerik hausnarketa teorikoaz, Migliorini (1946) eta Casares (1950) izan ezik. 60-70eko hamarkadetan, nazioarteko erlazio berrien eta hauek sortzen dituzten etengabeko informazio hartu-emanen eraginez, hizkuntz

---

<sup>1</sup> F. Heerdegen, “Lateinische Lexicographie”, in J. H. Schmalz & Fr. Stolz, *Lateinische Grammatik*, 3. arg., Munich 1900, 497-525. L. Cohn, “Griechische Lexicographie”, in K. Brugmann, *Griechische Grammatik*, 4. arg., Munich 1913, 679-730. Erreferentziak ap. Hausmann 1989. Gainerakoak ohiko bibliografian aurkituko dira.

aniztasunarekin lotutako arloei, Lexikografia barne, garrantzi berezia aitortzen zaie goimailako erakundeen aldetik (NBE, estatuak...), eta hizkuntz bitartekariaren ezinutzizko papera aldarrikatzen. Hizkuntzak ikasi eta irakasteko metodoak berriztatzen dira, itzulpengintzaren garrantzia goraka doa, Terminologia jaiotzen da, Informatika berehala lotzen zaio arlo guztiotan eman dezakeen laguntza aztertzeari... Globalizazioaren lehen sintoma horiekin bateratsu, hizkuntzen arteko gatazka bera ere inoizko nabarien bilakatuta, egokieran dauden hizkuntza txikiak babesteko lehen urrats instituzionalak ere ematen dira.

Honek eragin zuzena du gure arloan: 1960an lehen kongresu garrantzizkoa (Bloomington-eko biltzarra; ik. Housholder & Saporta 1962) antolatu zen. Frantzian ditugu, dena dela, egoera aldaketa erabatekoaren islarik ugari eta ñabarrenak, historiko-metodologikoak (Wagner 1967, Quemada 1967, Matoré 1968) edo metodologikoak huts-hutsean (Dubois & Dubois 1971, Rey-Debove 1971). Azken biak, bata *Larousse* etxeko erredaktoreek eta bestea *Robert* etxekoak egindakoak, NBE-k ordaindutako Zgusta-renarekin batera (1971), oraindik ere gaintitu ez diren lehen hiru eskuliburuak ditugu.

Berehala lehen lexikografi elkarteak sortzen dira (*Dictionary Society of North America* 1975, EURALEX 1983), baita osoki edo zatika Lexikografiaz kezkatzen diren aldizkariak ere: *Cahiers de Lexicologie* (1959), *Dictionaries* (1979), *Studi di lessicografia italiana* (1979), *Lexique* (1982), *Lexicographica* (1985) eta *International Journal of Lexicographie* (1988).

Bi hamarkada beranduago argitaratutako *Wörterbücher. Dictionaries. Dictionnaires* lan bilduma erraldoiak (1989) erakusten digu zenbat jende biltzeko gauza zen arlo berria, mundu osoko eta garai guztietako lexikografiaz, eta hiztegiaren alderdi guztiez hitz egiteko.

### 1.1. Metalexikografiaren xedea eta helburuak

Metalexikografia definienez —lehengo definizioa nahikoa hedatuaz— hiztegiaren alde guztietako azterketaz kezkatzen den jakintza gisa.

Definizioa itxuraz oso bakuna den arren, argi uzten du hiztegia dela, eta ez besterik, Metalexikografiaren xedea. Hiztegiaren funtsezko ezaugarriak mugatzeak ulertzen lagunduko digu, bada, zergatik oraintsu arte ez den hiztegietatik kanpora ia hausnarketarik egin hiztegi gintzaz, baita zein diren egun egiten ari diren lanen nondik norakoak.

Hala bada, hiztegia gutxienez hiru erataria uler dezakegu: hizkuntz deskribapen gisa, testu gisa eta kultur objektu gisa.

Hizkuntz deskribapen gisa, hiztegia Hizkuntzalaritzaren barruan kokatu beharko genukeen arren, honen organigraman Lexikografiak txoko txiki bat baino ez dauka, Lexikologiaren aldean, hots, lexikoaz arduratzen den jakintzaren aldean. Ezaguna da, halere, hiztegiak lexikoaz beste hizkuntz arlo anitzen berri eskaintzen duela (ahoskera, idazkera, joskera...); honek iradokitzen du txoko hori noraezean eratu zaiola, esateko moduan izenari gehixeago begiratuta, izanari baino.

Arazoa historikoa da. Batetik, Aristotelesengandik aurrera gutxienez eta gaur arte, Mendebaleko hizkuntzalaritza tradizio osoan onartzen da Logikak materia eta formaren artean egiten duen bereizkuntza, eta hizkuntzari egokitzen: hizkuntz forma (“hizkuntzaren arima” Larramendiren hitzetan) gramatika da, hots, hizkuntzaren arauak, eta hitzak —materia— gramatika arau horien mende daude zeharo (cf. oraingo “buruko lexikoak”). Hemendik eratortzen da hiztegia gramatikaren morroi izatea, Europako hiztegi gile (ia) guztientzat, gramatika-arauen hedapena edo gauzatzea besterik ez baita, gurean Larramendik eta lehentxeago Etxeberri Sarakoak agerriki aldeztu bezala (cf. gaiaz Lakarra 1993 eta 1995). Berezko mendekotasun honetatik dator metodologikoki hiztegiak betidanik gramatikaren atzetik eta itzalpean ibili izana.

Bestetik, jadanik gugandik hurbilago etorririk, garai batean —Saussure arte, demagun— gramatikak eta hiztegiak hizkuntz deskribapenaren aitzindari eta zutabeak ziren (mutur batean Nebrixa eta bestean Grimm, adibidez). Linguistika egun



hartakotzat jotzen duguna bilakatu ahala, berriz, euren bideak gero eta elkarrengandik gehiago bereizi dira, nahiz berez bata bestearen eskutik joan beharko liratekeen (Haensch *et al.* 1982). Beste alor batzuek bezala (Linguistika historikoa, esaterako; cf. Rissanen 1990), edo areago pairatu du Lexikografiak Linguistika modernoa urteetan batez ere teoriaren munduan murgildu izana.

Hiztegia eskuarki ez da hizkuntzalarientzat egiten, askoz ere erabiltzaile mota zabalago batentzat baizik. Hiztegiak, hortaz, maiz beren erara —maizenik tradiziozko erara— aurre egiten diete Linguistikan intereseoak izan ez diren edo han ondorio teoriko erabilgaitzak baizik izan ez dituzten deskribapenaren hamaika arazori. Alderantziz, hizkuntzalari askoren ustetan hiztegia, Larak (1997: 16) dioenez, onik onenean Hizkuntzalaritza Aplikatuaren barruan sartzekoa litzateke; eta, txarrean, Diskurtsoaren Analisia edo Psikoanalisi bezain susmagarri diren diziplinetara gehiegi hurbiltzen den zerbait.

Testuak diren bezainbatean, hiztegien azterketa Filologiari dagokio. Eta, hain zuzen ere, luzaroan hiztegiek jaso duten azterketa batik bat filologikoa izan da; gehienbat hitz honen adierarik ahulenean, ordea, zeren eta Filologiaren muina den Testukritikak ez baitie den gutxieneko arretarik jarri hiztegiek testu gisa dituzten berezitasun nabariei (Lakarra 1993).

Izan ere, hiztegiak bere moduko liburuak dira. Ez dira hasi eta buka irakurtzekoak, ireki eta orrialde jakin bateko zutabe batean dagoen ataltxo bat ahalik eta errazenean bilatu ahal izateko bereziki taxututakoak baizik. Gainera, ez dira testu arruntak, barruko gehiena zehatz-mehatz hitz eginez metahizkuntza baita. Eta, azkenik, jakintzaren igoerle diren heinean garapen endogamiko xamarra izan dute mendeetan zehar, euren arteko erlazio sare tapituak eraginez: kopia eta egokitzapena arau izan dira, ez bekatu, eta neurriren batean badira oraindik ere, plagioaz egun dugun kontzeptuak zilegiztatzen duen baino harago.

Honelakoen kontu gutxi eginik, azterketa filologikoa, urriaz gainera, sarritan anekdotikoa izan da, eta ez gutxitan alderrai ibilitakoa, hiztegiak dituen edukietatik batzuk —ez nahitaez esanguratsuenak— aipatzera mugatuta.

Kultur objektu izaera da, izan ere, atea ireki dituen hiztegia jakintza baten xede bihurtzen da (Rey-Debove 1971, Lara 1997). Beste edozein kultur objektu bezalatsu, hiztegiak gizartearen nolabaiteko kultur premiei erantzuten die, eta hala premia horietan nola pentsamoldean eta kultura materialean gertatzen diren aldaketei egokituz joaten da. Zehatzago, hiztegia gizarteak bere ama-hizkuntzaz —eta hizkuntzaz oro har— egiten duen hausnarketa eta erabileraren ondorenetako bat da eta, aldi berean, horien sustagarri ere izateko joera dauka. Hortaz, hizkuntzari buruz gizarteak dituen uste eta jarrerak islatzen eta batzuetan baldintzatzen ditu, baita inguruko herriekin dituen hizkuntz erlazioak ere.

Beraz, Metalexikografiaren xedea hiztegia dela diogunean, inplikatzeko ari gara diziplina honek gaintzen dituela, ez bakarrik Lexikologiaren mugak, Linguistikaren beste adar askotara joaz, baita Linguistikarenak berarenak ere, kultur objektu berezi honen ezaugarriak azaltzeko ezer eskain dezaketen alor anitzen laguntzaren bila: tipografia, liburu-banaketa, hizkuntz ideien historia, soziologia...

Era honetara ulertuta, Metalexikografiaren helburuak askotarikoak dira. Hona hemen Hausmannek (1988) proposatutako zerrenda, adibidez:

- ✓ Hiztegiaren historia
- ✓ Egungo hiztegien kritika
- ✓ Hiztegiak nola erabiltzen diren
- ✓ Herri bakoitzean hiztegiek daukaten estatus komertzial eta kulturala
- ✓ Hiztegien tipologia
- ✓ Hiztegiaren betekizunak
- ✓ Lexikografiaren testuaren teoria
- ✓ Datuen bilketa eta trataera Lexikografian
- ✓ Lexikografiaren jardunaren antolamenduen teoria

## 1.2. Metalexikografiaren norabide nagusiak

Erakusgarri modura erabil badaiteke ere, ez deritzat Hausmannen zerrenda behar bezain orekatua denik, guztiz arloan dabiltzanen norabide nagusien berri eman beharreko kontuan. Izan ere, beren artean bi jarrera oso ezberdin sumatzen dira, Hizkuntzalaritzan gertatzen denaren antzera; bidezkoa bide da, bada, hauei ere “sinkronikoa” eta “diakronikoa” deitzea.

Gorago aipatu ditudan zioengatik —eta zio hauen atzetik murgiltzen den diruagatik ere, jakina—, ia esan gabe doa alorraren hedapenik handi eta nabariena “sinkronikoa” dela, Hizkuntzalaritza Aplikatuaren barruan emanikakoa: hizkuntz irakaskuntzan erabilitako hiztegi elebidunak hobetzea, ordenagailuari hiztegiak egiten irakastea, terminologia zehazten laguntzea... honelako jardunetan dabilzan ofiziokoak gero eta gehiago dira azken urteotan.

Ez dut uste hiztegi gintzaren oraina eta geroa hobetu nahi lituzkeen jarduna alferrikakoa denik: aitzitik, hala ikertzaile nola batez ere erabiltzaile modura, ongi ezagutzen ditut jadanik egin dizkigun mesedeak. Alabaina, heziketaz ez ezik, eskarmentuz eta uste osoz ere, ikuspegi diakronikoaren alde egin behar dut proiektu honen atarian, gero datozenak ongi ulertuko badira.

Azken batean, Lexikografiaren Historiografian egiten ari dena ez da besterik, ezpada hiztegiekin behar bezalako Filologia egitea, azkenik ere, euren ezaugarri bereziak oso kontuan hartuta.

Oro har, gaur egun egiten ari den Filologiarik onenak, leporatu ohi zaizkion nolabaiteko atomismo eta teorikotasun haiek alde batera utzi ditu, eta testu bakoitzaren azterketari ekiterakoan saiatzen da argi izaten zein diren testuak sortzen dituen edo konpon ditzakeen arazoak, eta zein hartarako erabili beharko diren baliabide teoriko zein metodologikoak, direnak direla, zehaztasun filologikoan egiten den aurrerapen bakoitzak —Meilletek (1925: 24) zioenez— hizkuntzalariari beste aurrerapausu bat egiteko aukera eskaintzen diolako uste osoan.

Lexikografiaren Historiografian, bada, uztartzen dira hiztegien tipologian eta ezaugarritatzean egiten ari diren aurrerapenak hiztegien azterketa historikoarekin.

Helburu orokorra hiztegitzaren historia berez eraikitzea izanik, esan daiteke gutxienez beste bi helburu argi dautzala lan onenen azpian, hiztegien deskribapen hutsa gainditzea lortzen dutenetan, hain zuzen: batetik, eta nagusiki, hizkuntz ideien historian eta hizkuntz deskribapenean hiztegitzak izan duen papera aztertzea; bestetik, hizkuntz lekukotasun gisa hiztegiek daukaten lekua zehaztea eta argitzea.

Zehaztapen bat egin nahi nuke, ziurrenik jakintzat ezin eman dezakedana: metodologia honek hiztegi zaharrak zein berriak aztertzeko bideak eskaintzen ditu. Areago, oso kontuan hartzen du gaurko hiztegien ezaugarriak atzoko hiztegiek eratu dituztela hein handi batean, onerako zein txarrerako. Beraz, ikuspegi honetatik ezin da behar bezalako azterketa “sinkronikorik” egin, ezin daiteke biharko hiztegiak hobetze aldera serio lan egin, zehatz-mehatz ezagutu gabe zein diren atzoko hiztegien ongaitzak. Eta hauxe da Euskal Lexikografiari eman nahi niokeen ikuspegia, hurrengo atalean zehaztuko dudana bezala.

## 2. Euskal lexikografia

Ezin esan daiteke Euskal Lexikografia ongi jorratutako arloa denik. Euskal hiztegiak, gehienak ezezagunak bide dira are euskalari askorentzat ere, gure "Iturriak" atalari begiradatxo bat emanez egiazta daitekeen bezala; nolana ere, ez dute erraz diakroniaz aritzen diren ikertzaileen arreta erakarri, are gutxiago hizkuntzaren orainaz eta geroaz kezkatzen direnena.

Ez dago lan orokor argitaraturik (cf. Lakarra 1993 eta Sarasola 1998 argitaragabeak, ostera), Arzamendiren (1981) sailkapen oso mugatuaz eta Azkarate (1989) zaharkituaz besterik. Hiztegiak euren hitzaurreetan, edo aurkezpen idatzi zein elkarrizketetan egindako adierazpenak alde batera utzita, 1985 arte ez daukagu zatikazko lan gehiegi ere; bat ere ez, oso oker ez banago, Azkueren hiztegiaren ondoko hiztegi gintzaz, erreseinaren bat ez bada (cf. de Rijk 1988 garrantzizkoa, adibidez). Ildo honetatik, oraindik ere ikertzeko ditugu, bestalde, XIX. mendearen bukaeratik Gerra Zibila arte edo, *RLPhC*, *Euskal Eснаlea* edo *RIEV* bezalako aldizkarietan ugari xamar aurkitzen diren hiztegi atera berriei buruzko iruzkinak.

Nolabait hartzekotan, euskal lexikografia euskararen edo euskal literaturaren historiaren atal xumetzat hartu izan da; beste hizkuntzetan bezalatsu, bidenabar. Ikuspegi historiko honen barruan, dena dela, hiztegiez jardun dutenen hurbilketek bi ezaugarri oso nabari izan dituzte: endogamiko eta utilitarista izatea, alegia.

Endogamikoa izan da, nagusiki bi arrazoigatik: Batetik, euskal hiztegitzat bere ataletako batean euskal hitzak (asko edo gutxi, beti edo batzuetan) dituen edozein jotzen den arren, eta euskal hiztegiak guztiak 1970 arte gutxienez elebidunak diren arren, azterketan ez dira sekula kontuan hartzen hiztegioko beste hizkuntzak, euskal hitz horien esanahia zehaztu beharrez ez bada. Bestetik, dena euskaragatik eta euskararentzat azaldu nahi izan da, euskal hiztegi gintza Euskal Herrian bakarrik gerta zitekeen zerbait bailitzan, eta bere ezaugarriak bete-betean euskararen izaerak berezko edo euskararen egoerak halabeharrezko egingo bailituan.

Utilitarista izan da, funtsean hiztegiek zerbaitetarako daukaten balioaren araberakoa izan baita. Bi hurbilketa mota ditugu honi dagokionez:

- Denboraz kanpoko: Hiztegiak hitz-kutxak dira, eduki garrantzizko horren zorioneko baina behin-behineko edukitzaileak; hartara, euskal lexiko osoa biltzeko lanari ekarpenen bat egiteko gauza diren heinean aztertzen dira.
- Historikoa: Lekukotasun zaharrek berezko balioa dutela etsita daudenak ere badira, Euskal Herriaren, euskal kulturaren eta euskararen historiaren lekuko gisa erabiltzekoak izan litezkeela. Honelakoek euskal lexikoa osatzeko baliorik ez duten gauzak ere aurkeztu dituzte (osoki *descripta* diren atzerritarren zerrendak, adibidez).

Honezaz gainera, euskal lexikografiari buruzko ia lan guztiak Azkueren hiztegiaren ondokoak dira; areago, hiztegi hartan jaio zen euskal lexikografiaren historiari buruzko ikuspegiaren zordun ere badira oso neurri handian. Hauxe da, bada, lanok baldintzatzen dituen hirugarren ezaugarria.

Izan ere, Azkuek aurreko hiztegiak bitan banatu zituen: iturri erabili zituenak eta errefusatu zituenak. Bereizketa honetatik bi tradizio ezartzen dira euskal lexikografiaren historiaren barruan:

- Hiztegi gile zintzoak (Pouvreau, kasu), hiztegiko hitzak ahozko euskaratik edo literaturatik hartu zituztenak; Azkue bera tradizio honen erpinean dagoke.
- Hiztegi gile arriskutsuak (Larramendi buru), “benetako” hitzekin nahaste eurek asmatutako hitz berriak sartu zituztenak. Euskaltzaletasunaren alderdirik beltzenaren ordezkariak hiztegi gintzan —erdaldunen aurrean itxurak egin beharrekoak, alegia—, XX. mende hasierako garbizalekeria kaltegarriarekin lotzen dira mutur batetik; bestetik, apologi tradizioarekin.

Honen guztiaren ondorioz, euskal hiztegi zahar baten lehenengo argitalpenetik hasi (Agud & Mitxelena 1958) eta gaur arte, hiztegiak batez ere euren balioaren arabera argitaratzen eta iruzkintzen dira: hizkera hil baten lekukotasun gisa, Europan euskarak izan duen oihartzunaren lekuko gisa... baina balio hori batez ere euskal hitzetan neurtzen denez, azterketa maizenik, bekaturen bat gorabehera ere, hiztegi gilea “zintzoa” dela erakustera zuzenduta dago: era bateko edo besteko aberastasunak bildu dituela, eta Azkueren hiztegiari —euskal lexikoaren erroldatzat hartuta— ezer ekar diezaiokeela.

Euskal lexikografiari buruzko ikerketan izan diren lehen ekarpen garrantzizkoak, hainbat arlotan bezala, Koldo Mitxelenari zor zaizkio. Berak ekarri zuen gurera hizkuntz historialariek erabili ohi duten banaketa, lehen mailako lekukotasunak (testuak, adiera hertsian) eta bigarren mailako artean (hiztegietaoak, besteak beste). Izan ere, bigarren mailakoak bestelakorik ia ez dagoen garaietan (Erdi Aroan, adibidez) edo hizkeretan (Arabako euskararen, adibidez) bakarrik erabili ohi dira eroso, eta halaxe egin zuen berak ere (cf. Mitxelena 1964 eta 1958, hurrenez hurren).

Euskal testu corpusaren urritasuna dela eta, badirudi beste hizkuntzetan baino, euskararen historian are maizago jo beharra dagokeela bigarren mailako lekukotasunetara. Alabaina, zer egin liteke hiztegi-gile “arriskutsu” batekin topo egiten dugunean? Ez da galdera teoriko bat, zehatz-mehatz Mitxelenari (1970) Larramendik sortzen ziona baizik: Hegoaldeko literatur euskalkiak jaio baino lehenagoko denboran ez dago *Hiztegi Hirukoitza* baino lekuko mardulagorik, baina ezta euskal hiztegi-gintzaren historian, bere ustetan, arazo gehiago sortzen duenik, Larramendik ez baitzuen bertan bildutako hitzen etorkia adierazi, eta filologoak berak ere sarri ez baitaki euren artean bereizten. Irtenbide gisa, Testukritikan ohikoa den kontzeptu bat —*codex descriptus*— ekarri eta hertsapen bihurtu zuen. Berak erabili zuen moduan, hertsapen honek bi ulerkera ditu:

- Ulerkera hertsia: Hiztegietao lekukotasunak ezer baino lehenago aztertzeoak dira, nondik datozen zehazteoak; iturria aurkituez gero, *descriptus* bilakatuta, alde batera uzteoak.
- Ulerkera zabala: Iturririk asmatu ezean, aski da bestelako datu ziurrageekin (testuak, ahozko lekukotasunak...) bermatzea.

Mitxelenaren hurbilketak, aurreko eta ondoko gehienak baino anitzez sarkorragoa izanik ere, baditu arazo nabariak egungo ikuspegitik: batetik, dikotomia (Pouvreau vs Larramendi) lehengoan mantendu zuen, eta are hobeto teorizatu (cf. Mitxelena 1959, 1961); bestetik, hiztegien azterketara testukritika zorrotza aplikatzeko egin zuen saio laudagarriak alde bakarrik azaltzen du Larramendiren lana, edo bera bezalako beste edozeinena, zeren era batera edo bestera berma ezin daitekeen hitz multzoan geratzen baitira, hitz berriekin nahaste geratu ere, informaziorik baliotsuenak (hapaxak edo erdi-hapaxak), lehen bezain zalantzazko.

Euskal hiztegitzaren ikerketan harrezkero izan diren ekarpenak ere funtsean Larramendiren “erruz” lortu dira, baina Mitxelenak, zoritxarrez, hasieran bakarrik parte hartu ahal izan zuen, geroko garapena batez ere Lakarra irakaslearen lan eta bultzadari zor zaion bitartean. Izan ere, Larramendik ondoko mendeetan izan zuen eragin handia aitortzea eta bere helburu nagusia euskara erdaldunen aurrean aldezteia izan zela baieztatzea, bi jarrera hauen artean dagoen kontraesanak sortu zuen krisialdia. Honen ondorioz, lehendabizi Larramendiri buruzko ikuspegia berrikusten da (Mitxelena 1983a, 1983b, 1984, Lakarra 1985...), eta gero oro har ikerketaren xedea eta Euskal Lexikografiaren historiari buruzko ikuspegia, biak goitik behera aldatzen dira (Lakarra 1991, 1992b, 1993, 1994a, 1994b, 1995, 1996a...). Aldaketan gero eta garrantzi gehiago izan du Lexikografiaren Historiografian munduan barrena egiten ari dena kontuan hartzeak.

Hurbilketa utilitaristari aitz, hiztegia bera bihurtzen da ikerketaren xede. Ustez ongi ezagutzen ziren hiztegiak (Pouvreau, adibidez) era honetara aztertuaz, argi frogatu da hiztegiaren antolamenduari edo hiztegitzaren bilketa-metodoei jaramon egitea, adibidez, okerreko balioztapenak uxatzeko ezinbestekoa izateaz gainera, ilunpean zeutzan hainbat alderdi argitzeko oso bide emankorra dela (cf. Bilbao 1992 eta Lakarra 1995), zein ere den hiztegiari gero eman nahiko zaion erabilera.

Hurbilketa endogamikoari aitz, euskal lexikografia Europako lexikografiaren bilakaeraren barruan ulertu eta ikertu beharra aldarrikatzen da. Lehenik, euskal hiztegiak euren erdal erduekin batera aztertu beharra frogatu da, ereduak hala azaleko ezaugarriak (nomenklatura, antolamendua...), nola sakonekoak (hitz berriak, esaterako) azal baititzake, edo azaltzen lagundu behinik behin (cf. Urgell 1998a, 1998b, 1999a). Bigarrenik, erdal parekoak kontuan hartu beharra ere frogatu da (Lakarra 1995, besteak beste), zeren eta euskal hiztegiek islatzen dituzten hizkuntz fenomenoak (hitzberrigintza, garbizaletasuna, arkaismozaletasuna...), batzuetan kultur ingurune joeren oihartzun izaten baitira, bestetan finkatu gabeko literatur hizkuntzetako hiztegitzaren ia “unibertsaltzat” har litezkeenetakoak.

Bide honetatik, Euskal Lexikografiaren historiari buruzko ikuspegia ere zeharo aldatu da, “hiztegitzaren zintzo vs hiztegitzaren arriskutsu” dikotomia bere xalotasunean gaindituz eta Europako tradizio zabalaren barnean euskal hiztegitzaren lerro nagusi



bakarra ezarriz. Gero eta argiago dago ezen, euskararen egoera soziokulturalaren eraginez, euskal hiztegiek gaur arte guztiek dauzkatela antzeko ezaugarriak edo, bestela esanda, era ezberdinetara guztiek antzeko premiei erantzun nahi dietela, egoera berean diren edo izan diren beste hizkuntzetakoek bezalatsu. Inoiz baino argiago dago, bestalde, aldameneko hizkuntza handiak ezin ditugula beti azterketa eta kronologiarako eredu gisa erabili, halako premiak aspaldi galdu edo sekula izan ez dituztenez gero.

Oinarri hauetatik abiatuta:

a) Euskal hiztegitzat hartuko dugu euskara jasotzen duen edozein hiztegi, elebakar, elebidun zein eleanitza, euskara iturri-hizkuntza zein xede-hizkuntza daukana, orain artean egin izan den eta beste hizkuntzetan ohikoa den bezalaxe.

b) Aintzat hartuko dugu, euskal hiztegiak tradizio bateratua osatzen dutela, geroago ezarriko ditugun mugekin bada ere (ik. 1. gaia), eta tradizio hori hala euskararen ezaugarrietan —berezkoetan zein soziolinguistiko edo kulturaletan—, nola elkarren ezagutzan eta erabileran oinarritzen dela.

c) Azkenik, aintzat hartuko dugu ezen, hizkuntz lekukotasun gisa daukaketan balioaz gain, euskal lexikoa ezagutu eta osatzeko eta honen historia egiteko daukaten balioaz gain, badutela bestelakorik ere, hala nola nolabaiteko egoera soziolinguistiko eta kultural baten edo hizkuntz ideia zenbaiten isla modura. Alabaina, interes hauen gainetik, euskal hiztegien azterketak berezko interesa baduela aldeztuko dugu ezeren aurretik, hiztegiaren bilakaeraren isla den heinean.

Ikerbide berri honen helburu orokorra, beraz, euskal hiztegiaren historia bere baitarik berreraikitzea da, beste arlo zenbaiten (euskararen historia, euskal kulturarena...) lagungarri izan daitekeela begi-bistatik galdu gabe bada ere. Zatikazko helburuak, berriz, lehen baino ñabarragoak dira: euskal hiztegiak banan-banan deskribatu eta sailkatzetik hasi eta hiztegiaren asmoan, eredu eta iturrien erabileran, hiztegiaren antolamendu, aurkezpen grafiko, egitura zein edukian dauden osagai ezberdin guztiak gure tradizioan noiz sortu edo sartu, eta nola garatu diren aztertzerako doan eremu zabala dugu aztergai.

Azpimarra dezadan gure artean ez ezik arloan ere oro har badukeela interesik euskal lexikografiaren azterketak, gorago esandakoaren haritik. Hizkuntza gutxituen lexikografiak, gaiari buruzko literaturan erraz antzeman daitekeenez, ez dira oso ezagunak munduan zehar; eta, halere, hizkuntza handienek (eta tipologia flexiboko hizkuntzek) nekez baizik islatzen ez dituzten arazo batzuk gurean gardenki azaltzen dira: zenbait jadanik agerian jarri dira, hala nola azterketa morfologikoak hiztegi-tako hitz-berrigintzarekin daukan lotura erabatekoa (Lakarra 1994b, 1995; Urgell 2003b), testukritikak metalexikografiarekin uztartuta hiztegien azterketan eskain ditzakeen argitasunak (Lakarra 1991, 1996a; Urgell 2001c), atzerritar ereduaren erabilera hiztegi-gintzan daukan betebeharr berezia lexikoaren garapenari dagokionez (Urgell 2001a), edo hizkuntzari buruzko ideia orokorrek hizkuntza gutxituetan izan ditzaketen ondorio berezi eta eraginkorrak (Urgell 2002a).

Beste batzuk, berriz, oraindik jorrazekoak ditugu. Egiteko nabariena, inondik inora, hizkuntza gutxituetako hiztegi elebidunak ezaugarritzatzea izango genuke, bestek irekitako bideetatik agian (cf. oro har Zgusta 1989, eta katalanaz Gelpí 1997).

### 3. Euskal lexikografia irakasgai modura

Arlo gisa Euskal Lexikografiak izan ditzakeen helburu eta baliabideak alde batean ditugu, eta bestean irakasgai gisa izan beharko lituzkeenak, bistan denez. Irakasgaiak, bada, gutxienez oinarritzko aldagai bi hartu behar ditu kontuan: arloaren egoera zein den, eta hartzaileak zein izango diren.

#### 3.1. Arloaren egoera

Azken urteotan egin diren aurrerapen teoriko eta metodologiko garrantzitsuengatik ere, Euskal Lexikografiaren azterketa egiteko dago alderdi askotatik: badakigu ez dagoela lan orokorrik eta, honenbestez, esana dago ez dugula eskulibururik ere, ikasle-irakasleek oinarri eta erreferentzi modura erabil dezaketenik.

Honegatik, bi aukera zeuden hasiera batean: zertaz ikertu den eta hartaz bakarrik hitz egitea, edo ikuspegi orokorragoa ematen saiatzea. Bigarrena hobetsi dut proiektu honetan, zeren eta honela irakasleak ezinbestean oinarrietatik eta apal hasi beharra baitauka, goregi ibili gabe eta betiko leloetan ere geratu gabe. Bere buruari galdetu behar dio zein diren kontatu nahi duen historiaren hari nagusiak, eta zein gai izan litezkeen garrantzitsu, nahiz oraindik Euskal Herrian ikertuak izan ez. Jarrera hauxe da, hain zuzen, ikasleei transmititu beharko liekeena, nire ustez.

Honek esan nahi du, lehenik eta behin, irakasleak ahalegin berezia egin beharko duela oinarritzko kontzeptuak argitzen, testuinguru historikoak ezartzen, baita hiztegiak eta hiztegien izenak eta datak ezagutarazten ere, gaien mamiaz gainera.

Halaber, esan nahi du irakaskuntza proiektu honetan aurkezten diren gaiak aldez bakarrik datozela arloko literaturatik eta, beraz, hein handi batean hautagai honek hutsune larrienak betetzeko eta ikuspegi jarraitu eta koherente bat lortzeko egin dituen ikerketen fruitu direla.

### 3.2. Hartzaileak

“Euskal lexikografia” izeneko irakasgaia, gaur den egunean, Euskal Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretaritza lizentziaturetako 2. zikloko hautazko irakasgaia da (13655 eta 17843. zb., hurrenez hurren), 6 kreditukoa. Halere, Itzulpengintzako 2. zikloa aurtengo ikastaroan abian jarri denez, orain artean Filologian bakarrik eskaini da, azkenekoz 2001-2002. ikasturtean, ni neu irakasle nintzela.

Errealitate honek ondorioak izan ditu proiektuan. Aitortu behar dut nagusiki Filologiako ikasleei begira taxaturik dagoela, zeren eta erraz eta aberasgarriago baita, nik uste, zuzenean ezagutzen dugun soslaian pentsatzea, abstraktuan bakarrik susmatzen dugunean baino. Nabari da, ordea, Itzulpengintzako ikasleek heziketa ezberdina izango dutela, baita premia ezberdinak ere, alde behintzat. Dena dela, baderitzat funtsean bi taldeentzat berdin balio lezakeela, beherago aurkeztuko ditudan egokitzapen batzuk eginda bada ere.

#### 3.2.1. Filologiako ikasleak

Irakasgai hau ez da ikasle hauek euskal hiztegiez —garrantzizkoenez behinik behin— edota euskal lexikoaz zerbait ikasteko daukaten aukera bakarra.

Batetik, 1. kurtsoko “Euskara: Hizkuntza” derrigorrezkoak “Lexiko baliabideak: konposaketa, eratorpena eta mailegutza” izeneko atal bat dauka egitasmoan, eta 4. kurtsoko “Euskararen Gramatika Historikoa” derrigorrezkoak lexikoaren historiari atal pare bat eskaintzen dio. Gainera, ikasle batzuek behintzat hartuko zituzten edo hartuko dituzte 2. zikloko hautazkoen artean “Semantika” eta “Euskal Morfologiazko IMA”.

Bestetik, hala 1. kurtsoko “Euskal Testuak” nola 4. kurtsoko “Euskal Literatura I” derrigorrezkoen egitasmoetan Larramendi aipatzen da, eta Azkue 4. kurtsoko “Euskal Literatura II” derrigorrezkoan. Zalantzarik gabe, hiztegi-gile hauek eta gehiago ere agertuko dira 1. kurtsoko “Euskal Filologiaren Hastapenak” eta 4. kurtsoko “Euskararen Historia” derrigorrezkoetan, baita “Euskal Hizkuntz Ideien Historia” izeneko 2. zikloko hautazkoan.

Dakusgunez, Euskal Lexikografiara iristean, egiantzekoago da Filologiako ikasleek hiztegi-gile batzuk ezagutzea —eta are Larramendi bezalako batez nahikoa

ere jakitea— edota euskal hitzberrigintzaz, lexikografiaz ideia finkorik izatea baino. Esate baterako, 1. kurtsoko “Hizkuntzalaritza” derrigorrezkoaren egitasmoan “Semantika” bakarrik aipatzen da, ez Lexikologia, are gutxiago Lexikografia. Berriz, nolabaiteko euskarririk eskain ziezaguketan “Semantika” edo “Morfologiako IMA”, edo aldi berean emango dituzte, edo beranduago.

Ikasleen euren lekukotasunek horretan bermatzen naute. Honegatik, behar-beharrezkoa da ezeri ekin aurretik, eta ikasleek hiztegi erabiltzaile gisa duten eskarmentutik abiatuta, Lexikografi terminoak eta kontzeptu nagusiak aurkeztea eta argitzea.

### **3.2.2. Itzulpengintzako ikasleak**

Ikasle hauekin alderantziz gertatzen da ia: 1. kurtsotik alderdi teoriko eta batez ere praktikotik Lexikografiarekin zerikusia duten edukiak ugari xamar jasotzen dituzte irakasgai askoren egitasmoek, guztiz euskal adarrekoek: “Informazio lexikografikoa” eta “Informazio terminologikoa” (“Itzulpengintzari aplikaturiko dokumentazioa” derrig.), “Lagungarri lexikografikoak” (“A hizkuntza I: euskara” derrig.), “Lexiko baliabideak: konposaketa, eratorpena eta mailegutza” (A hizkuntza II: euskara” derrig.). Oso lagungarri gerta dakizkiguke, orobat, 1. zikloko “Itzulpengintzari aplikaturiko hizkuntzalaritza” derrigorrezkoa eta “Hizkuntzalaritza kontrastiboa” hautazkoa, baita 2. zikloko “Itzulpengintzara aplikaturiko informatika” eta bereziki “A Hizkuntzako terminologia” derrigorrezkoak.

Berriz, egiantzekoa da ikasle hauek lizentziatura osoan zehar euskal hiztegi eta hiztegitik zaharrez —oraintsukoez beste edozeinez, alegia— inolako informaziorik ez jasotzea, agian 4. kurtsoko “Itzulpengintzaren Historia” derrigorrezkoan bidenabar izango dutena izan ezik.

Euskal Filologian aipatuenak izaten diren egileak (Larramendi, Azkue...) alde batera utzita, ez dut uste, dena dela, honek bi taldeen artean egiatan alde handirik ezartzen duenik. Irakasgaia Itzulpengintzako ikasleei egokitzeotan, nahiago dut beren premietan gehiago pentsatu, euren gabezetan baino, guztiz gabeziak histori

xehetasunetan batez ere biltzen direnean, behar izanez gero hauek kasuan-kasuan galde-erantzunen bitartez aise konpon daitezke eta.

Premien ikuspegitik, aldiz, argi eta garbi bi gaik garrantzi gehiago hartu beharko lukete, nire ustez, gainerakoan kaltetan: “Lexikografi oinarri teorikoak” (§ 1) eta “Hiztegigintza batua” (§ 8).

Oinarri teorikoei dagokienez, gehixeago luzatu beharko ginateke hiztegi elebidunetako ordainez, Itzulpenaren teorian eta itzulpen praktikan hizkuntzen anisomorfismoaz eta ordezkagaiztasunaz ikasten dutena hiztegietan nola islatzen den aztertzeke.

Baderitzat, bestalde, Itzulpengintzako ikasleek ere argi izan behar dutela gaurko hiztegigintza nondik nora doan, zeina baita gure egitasmoak 8. gaian azpimarratzen duena; baina, honezaz gainera, Filologiakoentzat baino anitzez premiazkoagoa da eurentzat eskura dauden hiztegiak zein diren eta nolakoak diren argi izatea. Beraz, “Adibide eta argigarriak” atalean hizkuntz hiztegi orokorrez proposatzen direnez gain, bestelako elebidunak ere (ingelesa eta euskara barneratzen dituztenak batik bat) aztertu beharko genituzke. Ez dut uste, berriz, terminologian sakondu beharrik dagoenik, “A Hizkuntzako Terminologia” izeneko 3. mailako derrigorrezko irakasgaia daukatenez gero.

### **3.2.3. Hirugarren zikloko ikasleei begira**

Kontuan hartu beharrekoa da irakasgai hau “Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia” doktorego programan osatu ahalko dela; izan ere, “Euskal hiztegi zaharrak, hiztegigintzaren testukritikaren aztergai” izeneko 3 kredituko ikastaroa eskainia dugu 2002-2003. ikasturteko. Kontuan hartzekoa da, zeren eta asmoa baita hemen gaingiroki baino azaltzen ez dena, doktoregoan sakon azaldu eta sakonago aztertzea, guztiz hiztegigintzaren azterketaren metodologiari dagokionez.

Derradan, bide batez, 3. zikloko ikasleek José Antonio Pascual irakaslearen “La Historia en el quehacer lexicográfico” ikastaroa ere aukeran izango dutela ikasturte honetan, eta hurrengo urteetan ere arlo honetan dabilzan kanpoko irakasle gehiago hona ekartzeko nire eskuan diren ahalegin guztiak egingo nituzkeela.

## 4. Helburuak

### 4.1. Helburu orokorrak

Badirudi irakasleak lauzpabost helburu orokor izan behar dituela, edozein irakasgaitan dela, batzuk oinarri-oinarrizkoak, besteak zeharo desiragarriak. Honako hauek azpimarratuko nituzke:

- Ikasleak ulertzea eta ikastea transmititu nahi zaizkion edukiak.
- Ikaslearen jakin-mina piztea, eskolan inplika dadin eta, hartara, informazio transmisioa ahalik naturalena gerta dadin.
- Ikastaroaren hasieratik, eta guztiz amaieran, ikasleak irakasgaiari buruzko ikuspegi orokorra erdiestea. Honen barruan sartuko genuke lizentziaturaren barruan non kokatzen den argi izatea, baita “zertarako balio duen” galdera ospetsuaren erantzunak ezagutzea: zer dakarkiokeen filologo edo itzultzaile izango denari, alegia.
- Ikaslearen kritikotasuna eta ikerkuntza-gaitasuna bultzatzea, edozein arlotan —ez bakarrik honetan— erabiltzeko moduan, izan ere, hala teoria nola metodologia ulertzeko eta erabiltzeko erak maizenik jarrera intelektual orokorrago batean sartzekoak baitira. Aurrez ikusi behar genuke, dena dela, balitekeela etorkizunean ikasleak honetan era batera edo bestera aritu behar izatea. Beraz, honen barruan kokatuko nuke nora jo (bibliografia) eta nondik ekin ere (arloko ahuleziak, hutsuneak eta arazoak) argi izatea.

### 4.2. Helburu zehatzak

Helburu orokorrez gainera, badira irakasgai honi bakarrik, edo honi berezi-bereziki dagozkion beste helburu batzuk. Helburuetara baino lehenago, dena den, komeni da ikaslearen soslaia muga dezagun, lehenago esana laburbildu eta zehaztuaz.

Jakintzat eman dezakegu hiztegia nolabaiteko maiztasunez erabiltzen duela: hartarako ohituta dagoela oinarrizko hezkuntzatik eta, dagoeneko lizentziaturako bigarren ziklokoa denez, sarri hiztegi mota ezberdinetara jo beharra izaten duela, beharbada Itzulpengintzakoak gehixeago Filologiakoak baino. Edonola ere, jakintzat eman dezakegu, halaber, ez duela lexikografiari buruzko ezagutza teorikorik batere (Filologiakoa bada), edo handik eta hemendik eduki batzuk jaso dituela, era orokorragoan ziurrenik (Itzulpengintzakoak bada); edonola ere, hiztegi erabiltzaile arrunten antzera, hiztegiak erabili erabiltzen dituela, baina hitzaurreak irakurri ez. Eta, azkenik, jakintzat eman dezakegu, gure eskarmentuaren arabera, ikasle askok eta askok pentsa genezakeen baino hiztegi gutxiago eta zaharragoak dituztela etxean eta, hortaz, maiz ez dituztela azken ekarpenak ezagutzen; hiztegi zaharrez den bezainbatean, baliteke gehienek hiztegi batzuez (Larramendi, Azkue...) zer edo zer entzun izana, baina oro har Euskal Hiztegiaren historia bezalako ezer denik ere, ziurrenik ez dute den gutxieneko aztarrenik.

Helburuak bitan banatuko ditut, batzuk ofizioko izango denari baitagozkio (filologoari batetik, terminologo edo hiztegiileari bestetik), eta besteak hiztun arrunt gisa edo hizkuntz bitartekari gisa (irakasle, itzultzaile...) hiztegi erabiltzaile denari.

- Ofizioko izango direnentzako helburuak

- ✓ Lexikografiaren teorian, metodologiaz eta terminologiaz oinarrizko heziketa jasotzea.
- ✓ Euskal hiztegiaren historiaren ideia orokor bat lortzea.
- ✓ Lexikografiaren Historiografiaren metodoak ezagutzea.
- ✓ “Euskal Lexikografia” iker-arloaren bilakaeraz eta egungo egoeraz behar beste informazio izatea.

Azken honen barruan bereziki azpimarratuko nituzke hurrengo hauek:

- ✓ Euskal lexikografiaren historia gainerako arloetatik —guztiz Euskararen Historiatik— ongi bereiztea, bakoitzak bere metodoak erabilia elkar sustatzekoak badira ere.



- ✓ Hiztegi gintza aztertzeko metodoak unibertsalak direla argi izatea, vs ikerketa anekdotikoa edo intuitiboa.
- ✓ Euskal hiztegi gintzaren historia Europako testuinguruaren barruan aztertu beharraz jabetzea, vs hurbilketa endogamikoa.

Labur esanda, ikastaro honek Euskal Filologiako ikaslea euskal hiztegi zaharrak —hiztegi zaharrak oro har— Filologiaren lanabes gisa erabiltzeko bereziki gaitutako filologo bihurtu behar luke. Itzulpen gintzakoa, berriz, alderdi diakronikoez sentiberago bilakarazi nahi luke, baita duten ezagutza praktikoa formalizatzen lagundu ere.

- Hiztegi erabiltzaileentzako helburuak

Erabiltzaile hobeak lortu nahi lituzkete hiztegi gileek, eta irakasgai hau izan daiteke lekuri egokiena ohitura honetan hezteko: hitzaurrea irakurriko dutenak, bertan azaltzen diren edukiak egoki ulertzeko moduan; halaber, hiztegi giko edozein sarreraren aurrean, dagoena eta ez dagoena bereizten jakingo dutenak, eta dagoenaren barruan zer dagoen eta non begi-kolpera asmatuko dutenak. Euskal hiztegiez den bezainbatean, ikastaroarekin lortu nahi genuke ikasleek argi izatea zergatik diren diren bezalakoak gure lehengo eta oraingo hiztegiak. Nahi genuke, beraz, gutxieneko kontuan ikasleak hiztegi en erabiltzaile kritiko bihur daitezen.

## 5. Metodologia

Aurreko atalean finkatu ditugun helburuak lortzeko erabiliko dugun metodologia bakuna eta zehatza da: eskolako azalpenak behar beste adibide eta argigarriekin osatzea. Hona hemen bi zutabeok zein bere aldetik azalduta:

### 5.1. Alde teorikoa: eskolako azalpenak

Esango genuke irakaslearen azalpenak oraindik ere unibertsitateko irakaskuntza sistemaren bizkarrezurra direla. Teknologia berriak gutxietsi gabe, baderitzagu irakasle on bat —arbelaren laguntzarekin, adibidez— aski eta sobera izan daitekeela irakaskuntzaren helburuak lortzeko.

Oro har, irakasgai bati dagokion informazioa gaur hain da handia eta hain dago barreiatuta, non beharrezkoa izaten baita ofizioko baten bitartekotza, berak bakarrik hauta baititzake egitasmoko gai bakoitzari buruzko funtsezko edukiak. Bestetan —Euskal Lexikografian, esaterako— areago gertatzen da: ez dago eskulibururik, eta jorratu behar diren gaietako batzuk behar bezain zehatz aztertu gabe daude. Kasu honetan, beraz, irakaslearen azalpenek literatura sakabanatua koherenteki lotzeko eta hutsune larrienak berak egindako ikerketaren bitartez betetzeko eginkizuna ere izan behar dute.

Gakoa honetan datza, alegia: azalpenak argiak, behar bezala egituratuak eta erritmo egokian emanak izatean. Alabaina, hau ezin daiteke irakaslearen pertzeptzioaren baitan bakarrik utzi: azalpenak ulertu direla bermatzeko, beharrezkoa da lehenbailehen irakasle eta ikasleen arteko harremanak erraztu eta bideratzea. Ildo honetatik, oso garrantzizkotzat jotzen dugu azalpenak noizbehinka galderekin etetea, baita ikasleak animatzea, nahi beste galdera eta iruzkin egin ditzaten. Jarraipena egiaztatzeaz gainera, batzuetan ikasleen zalantza eta iruzkinek irakasleak jakintzat eman edo kontuan hartu ez dituen ikuspegi aberasgarriak azalerazten dituzte. Halaber, oso garrantzizkotzat jotzen dugu atzeranzko erreferentziak etengabe egitea, gaien arteko loturak eta aldeak azpimarratzeko eta ideia nagusiak behar beste nabarmentzeko.

Irakasle eta ikasleen arteko harremanen barruan, tutorego-orduak profitatu beharrez mintzatu behar zaie ikasleei, bai gaiak berpasatzerakoan edo bibliografia irakurtzean sortu zaizkien zalantzak konpontzeko, baita norbere lana behar bezala bideratuaz joateko (ik. § 6.1) ezinutzizkoak baitira. Gure ustez, behar baino nahikoa gutxiago erabiltzen dituzte, baina ez dugu etsiko.

Eskolen hasieran, hala dagokionean, irakasleak adibideteak banatuko ditu. Jakina da honelakoek nahikoa laguntzen diotela ikasleari apunte zehatzagoak hartzen; halere, badute beste abantailarik, hurrengo atalaren mintzagai, hain zuzen.

## 5.2. Alde praktikoa: adibide eta argigarriak

Ikasle eta irakasle bezala daukagun eskarmentuak argi aski diosku garapen teoriko soila, edozein gaitan dela, ikasleei aspergarri eta etsigarri suertatzen zaiela: oso zaila da azalpenek —irakasteko pentsatuak, ez entretentzeko— ikaslea irakaskuntzan inplikatzeko. Adibideak azalpenak argitzeko biderik zuzenena dira, baita irakasle eta ikasleen arteko harreman desiragarri horiek bultzatzeko ere: ikasleei galderak egin eta eragiteko aitzakia ezin hobeak, eta gaia nola asimilatzen ari diren antzemateko era erraza.

Gainera, lexikografia begiztatu egin behar den zerbait da: ezer gutxitarako balio du hamaika azalpen emateak, hori hiztegi zehatzetan nola gauzatzen den ikusterik ez badago. Honegatik, gure eskolen zati ezinutzizkoa, azalpen teorikoen une oroko laguna, adibide eta argigarriek osatzen dute.

Argigarriek jatorrizko testuaren itxura ikasleei begietaratzea dute helburu: ikusi ezean, nekez asma daiteke nolako aldea dagoen gaurko hiztegietatik zaharretara, edo eskuizkribuetatik argitaratuetara, adibidez. Bestetan, garai bereko hiztegien arteko alde formalak erkatzeko oso baliagarriak izan daitezke.

Gai zehatzak argitzeko berariaz prestatutako adibideak ere ugari erabiliko ditugu, azalpen teorikoetan egingo ditugun baieztapen garrantzizkoenen euskarri.

Adibideak lantzeko orduan, ikaslearen partehartzea ezinbestekotzat jotzen dugunez gero, gogoan atxiki behar dugu hasieran nekez lortu ohi dela, nahiz lexikografi terminologia eta edukietan ohitu ahala errazago bilakatzen den. Dena dela,

hasierako uzkurtasuna ematzeko, komeni da hartarako egokiak diren galdera eta adibideetatik hasia. Honegatik, lehen gaian hiztegi erabiltzaile arruntak erantzun ditzakeen galderak eta uler ditzakeen adibideak prestatu ditugu. Ildo honetatik, asmoa daukagu epe laburrean zenbait lanetan (cf. Gelpí 1997) ikusi ditugun lexikografi galdetegiak egokitzea, bide batez ikasleen arteko galdeketak euskal hiztegien erabileraz daukagun erabateko ezjakintasuna argitzen has daitezengatik.

## 6. Ebaluaketa

Gaur egun ebaluaketaz hitz egiten denean, hala ikasleak ikastaroan zehar egin dituen aurrerapenak neurtzeko erabiltzen diren sistemez, nola berak ikastaroaz egin dezakeen balioztapenez hitz egiten da. Bietaz jardungo dugu, beraz, ondoko lerrootan.

### 6.1. Ikaslearen ebaluaketa

EHUaren *Lehen eta bigarren zikloetako irakaskuntza kudeatzeko Araudia*-k (II. tit., 6. art.), oso kontuan hartuko ditugun hiru ohar egiten ditu: batetik, ikasleei irakasgaia ebaluatzeko modua ikasturtearen hasieratik jakinarazi behar zaiela; bestetik, ebaluazioa azterketen, etengabeko ebaluaketaren edo lanen bidez burutu ahal izango dela; eta, azkenik, ikasleak ikastaro amaierako azterketa egiteko eskubidea bere duela.

Filologia eta Geografi-Historia Fakultate honetako Arautegiak (39. art.), bere aldetik, oroimena bakarrik neurtzen duten azterketez bestelako metodoak bultzatzearen alde agertzen da, guztiz lan programatuen.

Beste irakasgai batzuetarako etengabeko ebaluaketaren aldekoak bagara ere, Euskal Lexikografian lan programatua hobetsi dugu. Zein-nahi alorretan praktika —irakasgaiaren eduki eta teknikekiko harreman zuzen eta pertsonala— beharrezkoa izanda, beharbada Lexikografian inon bainoago dugu. Irakasgai honen helburuak lortzeko biderik zuzenena, gure ustez, ikasleak ikergai bat hautatu eta irakaslearen tutoretzapean bere kasa hartan sakontzea da. Honegatik, legeari atxikita azken azterketa egiteko aukera eman behar bazaio ere, haren ordeztu lan bat egitea aholkatuko zaio.

Lanak bi eratakoak izan daitezke: oinarrizkoa eta bikaina.

Oinarrizko lana.— Honelako lanaren bitartez, ikasleak alorra ezagutzeko gutxieneko kontzeptuak menderatu dituela erakustea lortu nahi da; nolabait esanda, irakasgaia gainditzeko moduko lana izan behar da. Oinarrizko lan gisa, euskal hiztegi baten deskribaketa proposatuko zaio ikasleari, bere joera eta zaletasunen arabera:

hiztegi zaharra edo berria, elebidun edo elebakarra, orokorra, dialektala, teknikoa, etab. Alde honetatik, aukera erabat bere esku egongo da, haren gustuko zerbait hautatzen baldin badu, lanean gehiago inplikatu delakoan.

Lan bikaina.— Honela deritzaguna berezituagoa izango da eta, hortaz, hasiera batean behintzat, irakasgaiaren oro har, edo irakasgaiaren alderdiren batean interes gehiago erakusten duen ikasleari egokituko zaio. Esan gabe doa honetan ere ikaslearen baitan utziko dela erabiliko d(it)uen hiztegia(k) hautatzea; halaber, bere baitan egongo da lana erabat lexikografikoa izango den (hiztegi baten definizioak edo ordainak nolakoak diren aztertzea, taiu bereko hiztegi bi edo gehiagoren artean antolamenduan edo sarrera barruko informazioan dauden berdintasun eta ezberdintasunak neurtzea...) edo filologikoagoa (hiztegi baten iturriak arakatzea, hiztegi bi edo gehiagoren arteko erlazioak miatzea...).

Oso garrantzizkoa da ziurtatzea ikasleak ez duela lana osoki bere kabuz egingo, ez eta “azken orduan” aurkeztuko. Honetarako, irakasleak alde aurretik egutegi bat proposatuko du, honako epe hauekin: (1) lana erabakitzeko epea: tutorego-orduetan ikasleak irakasleari jakinaraziko dio zein den hautatu duen gaia; irakasleak lana mugatzen eta ildo nagusiak ezartzen lagunduko dio, eta beharko bide duen bibliografia proposatuko; (2) lehen zirriborroa aurkezteko epea: irakasleak eransketak edo zuzenketak iradokitzeke beta izango du; (3) azken epea: Fakultateak irakasgaiaren azken azterketa egiteko programatuko duen dataekin bat etorriko da.

Era honetara, bideak jarriko dira lanaren bigarren helburua, bestea bezain garrantzizkoa, lortzeko: ikasleak ikerketan trebatzea, suspertzea eta gidatzea, alegia.

Irakasgaia emateko izan dudana aukeraren arabera, ikasle gehienak oinarrizko lanaren aldera makurtzen dira, espero bezala, eta ikergai gisa hiztegi modernoak nahiago dituzte. Hauen barnean, alde handiaz hautatuenak hizkuntz hiztegi orokorrak izaten dira; antza denez, arrazoi bakar bezain bakun bategatik: aukeran, erabili ohi dutena hobeto ezagutu nahiago dute. Hiztegi dialektalak bigarren azaltzen dira, hain zuzen ere dialektologiaz edo norberaren hizkeraz kezkatuago agertu diren ikasleek hautatuak. Edonola ere, oinarrizko lana hautatu duten ikasleetako askok erakutsi didate badakitela lan “bikainak” egiten: XX. mendeko hamaika hiztegiren azterketa

lexikografiko duinak bildu izan ditut, kasu guztietan delako hiztegiak egiten zen lehenengo hurbilketa.

Lan bikaina hautatu dutenak bi eratakoak izan dira: (1) hiztegi zaharretarako joera dutenek alderdi lexikografiko eta filologikoa uztartu dituzte, halako hiztegien iturriez edo euskal ordainez jarduteko; (2) ustez ustekabeen, aurrez lexikografi egitasmoetan sartuta zeuden ikasle zenbait ere azaldu dira; beraz, zer hobeagorik, eure egitasmoen aurkezpena paratzea baino?

Amaitzeko, esan nahi nuke nire aburuz lan hauen balioa ez litzatekeela bere baitan agortu behar, guztiz kontuan hartzen badugu, 2. zikloko ikasleak izanik, jadanik lizentziatura ondoko garaian pentsatzen hasteko egokieran daudela. Honegatik, eskuratutako lan berritzaileen egileak animatu ditut lanean jarrai dezaten, laster horietako zenbait (Urte eta Aizkibelen hiztegiez, esaterako) edonon aurkezteko eta ziurrenik argitaratzeko moduan egongo direlako esperoan. Lanen bidezko ebaluaketaren xedeetako bat, hortaz, arlo honetan lan egingo duten ikertzaileak aurkitzea eta hezteka da. Une honetan, ikasle bat daukagu 6 kredituko ikerkuntza-lana eta apika tesia bera ere Duvoisinen hiztegiak egiteko prest.

## 6.2. Irakaslearen ebaluaketa

Irakasleak berez jasotzen dituen inpresioez eta ikasleek zuzenean azaltzen dizkioten iritziez gainera, badirudi gero eta argiago dela bide egoki eta anonimoagoak aurkitu beharra irakaslearen jardunbidea ebaluatzeko.

Alde honetatik, orain artean EHUak berak irakasleak ebaluatzeko erabiltzen duen metodo estandarri atxiki gatzazkio. Esan gabe doa emaitzak aztertzen ditugula eta gure pertzeptzioekin erkatzen, urteroko ebaluaketatik ondorio zenbait atera nahiz. Dena dela, gure lankideetako batzuek erabiltzen dituzten galdetegiak ere ezagutzen ditugu; etorkizunean horietakoren bat pertsonaltzeko asmoa dugu, EHUaren kontuan hartzen ez dituen alderdi jakingarri zenbaitez galdetzeko asmoz.

## 7. Gaien izaera eta egitura

### 7.1. Gaitegiaren edukia

Aurkeztutako proiektuaren garapena ikasleei ikasturte hasieran banatzen zaien egitasmoan oinarritzen da. Irakasgaia 6 kredituko hautazkoa izanik, denbora zertan eman behar den tentuz neurtu behar da. Honegatik, bi atal nagusi egin dira:

- Sarrera (1. eta 2. gaiak)

Lexikografiaz jarduteko ikasleak ezagutu beharko dituen gutxieneko kontzeptuak azaltzen dira lehenik (1. gaia). Ondoren, Mendebaleko Europako lexikografiaren hastapenei begiratu labur bat ematen diegu (2. gaia), noiz, nola eta zergatik sortu zen eta lehen mendeetan nola garatu zen ulertzeko moduan behinik behin, ikasleak erraz erlazioa dezan hurren ikusi behar dugun euskal lexikografiaren historiarekin.

- Euskal lexikografiaren historia (3-8. gaiak)

Gaien banaketa egiterakoan, erabili ohi diren ebakidura nagusiak hartu dira kontuan, eta barne-koherentziari eta erosotasunari batez ere begiratu zaio.

### 7.2. Gaien egitura

Proiektuan ageri diren bezala, gaiak lau atal dituzte:

- Helburuak

Gaia mugatzeko, ohar orokor batzuk egiteko eta nagusiki interesatuko zaizkigun alderdiak azpimarratzeko balio du.

- Edukiak

Gaia garatzerakoan irakasleak erabiliko duen oinarritzko eskema, ikasleek egitasmoaren bitartez ezagutuko dutenaren aurkezpen zehatzagoa.



- Azalpena

Gaiaren garapen laburra. Ez da eskuliburu gisa taxutu (prestatzen ari naizenaren hezurdura agerian jartzen badute ere), hain zuzen ere irakaskuntza-proiektu gisa baizik. Atal honetan, hortaz, gaia garatzeko erabiliko dugun ikuspegi orokorra (hemen testuinguruak garrantzi handia izango du) eta ikasleei azpimarratuko zaizkien alderdiak azaltzen dira nagusiki.

- Ikasleentzako irakurketak

Erabilitako bibliografia guztitik batzuk (bizpahiru) hautatu dira, alderdiren batetik interesgarriago direlakoan. Banan-banan zehazten da aukeraren arrazoia. Hauexek dira ikasleei egitasmoan jarriko zaizkienak eta, hortaz, eskolan parte hartzeko eta irakasgaia gainditzeko eurek irakurri beharko dituztenak.

- Bibliografia

Irakasleak gaia prestatzeko erabili dituen bibliografi iturri orearen aitortpena.

## 8. Eranskinak

- Iturriak

Euskal hiztegien errolda egiteko dago, nahiz euskal lexikografiaren historiaren ikuspegi orokorra eman ahal izateko —eta topikoak uxatzeko— lehen urratsa izan. Hau konpondu nahian, zerrenda mota bi prestatu ditugu: (1) 1745 arteko lan lexikografikoak banan-banan aipatzen dira, eta bakoitzari buruzko ahalik informazio gehigarri gehiena ere ematen (argitalpenak...); (2) 1745etik aurrera gero eta zailagoa da zerrenda osoak ematea, lanak ikaragarri ugaltzen baitira; honegatik, gai bakoitzeko behin-behineko zerrenda osatu dugu, lanaren egilea, izena eta urtea bilduaz eta, ahal zela, irizpide zenbaiten arabera sailkatuaz.

- Adibide eta argigarriak

Gai bakoitzeko argigarri eta adibide multzo bat prestatu da, eskeman ageri diren gaien eta azalpenean egiten diren baieztapenen argigarri eta frogagarri. Gehiegi, aukeran, baina jakintzat eman behar da gai bakoitzeko, denboraren arabera eta azpimarratu nahi ditugun alderdien arabera, irakasleak horietako batzuk hautatuko dituela. Alabaina, desiragarritzat jotzen dugu ahalik gehienak erabiltzea.